# Isiltasun motak

Gure kanturako gaia isiltasun motak izango dira.
Lehenik, bertsotan **zer esana izateko,** sakondu dezagun gaian!

Hara hemen isiltasun mota batzuk. **Zein egoeratan sentitu** izan dut bakoitza?
Aldiro adibide bat idatziko dugu. Gero bertsotarako baliagarriak izango zaizkigu!

## Isiltasun beteak

**Gustura gaudenean** gertatzen direnak.

## Isiltasun zorrotzak

**Beldurragatik** sortzen direnak.

## Isiltasun urduriak

**Lotsagatik** gertatzen direnak.

## Isiltasun ozenak

**Haserre gaudelako** gertatzen direnak.

## Isiltasun hutsak

**Asperduraren asperduraz** gertatzen direnak.

Has gaitezen kantuan! Asmakizunetan ariko gara.
Bi aukera ditugu horretarako:

-Isiltasun mota bat deskribatzea, lagunek zein den asma dezaten.

-Soinu bat entzun eta soinu horren atzean zer gertatu den azaltzea.

Laguntza behar badugu, **karta jokoan azken puntuak eta oinak** ditugu erabilgarri bi multzo hauetan: “Isiltasun motak” eta “Soinuaren atzean zer gertatu da?”.